




**ERREGINA ERREGORDE KALEKO LORATEGIAK**

**F MAILA**

**ERREGINA ERREGENTEA, Z.G.**



**Juan Rafael Alday, 1923**

**Deskribapena**

Juan Rafael Alday arkitektoak 1923an proiektatutako lorategia, 1921ean inauguratutako Zurriolako zubiarekiko sestrak eta trazadura bateratzeko asmoarekin.

J. R. Aldayren diseinua lorategi italiar klasikoan oinarritzen da, funtsezko konposizio ideari dagokionez: eszena hondotzat harmailadi bat buru duen urmaela; esaterako, harmailetan, bankuetan eta balaustreetan trazadura zirkularra nagusitzen den errepertorio formalaz. Kareharrizko elementu horien guztien diseinua eta eraikuntza nabarmentzen dira. Jatorrizko lorategiak lekualdatu da mende honetako lehen hamarkadaren amaiera aldean, zonaren hiri berrantolamenduaren ondorioz, eta Boulevardean lurpean eraikitako aparkalekuaren eta inguruko bideen ondoriozko berrurbanizazioaren eraginpean dago. Lorategi osoa hegoalderantz lekualdatu zen, Victoria Eugenia antzokiaren alborantz. Hala, elementu bakartu izateari utzi dio eta Okendo plazaren multzoko oinezkoen espazioarekin jarraitutasunean kokatzen da. Lorategiaren garrantzia eta jatorrizko kokapena galtzeak ekarri duen kalte nabarmena gorabehera, aintzatetsi egiten da Erregina Erregenteko lorategien oinarritzko babesaren beren hurbileko ingurunean, baita haien jatorrizko zati balioetsuei –urmaela, harmailadiak, begiratokia– eutsi izana ere, multzoaren eraikuntza eta arkitektura kalitatea gordetzen baitute.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra  
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariatzko babes erregimena
  - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak: ez.
  - B.- Elementu iraunkorrak: jatorrizko urmaela, harmailadiak eta begiratokia.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak.
    - Lorategien esparruan debekatuta dago sestra gainean eta sestrapean eraikitzea.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.